

Jar ezazue estelada

Pasa den uztailearen 26an Julen Mendizabal preso politiko arrasatearrak udaletxean Udal Gobernuak ipinitako bandera espainiarraren inguruan idatzitako “Kendu ezazu, Maria” eskutitzetik tiraka gatoz gaurkoan Arrasateko Sortutik.

Hondarribiko DUT taldearen kantu batek zioen bezala “Bandera trapu bat da, haizerik ez badabil”. Literalki eta metaforikoki esaldi ezin borobilagoa. Baina Katalunian haizea puzka indartsu dabilela ezin ukatu. Euskal herritarrok amesten dugun errealitatea eraiki dute katalanek azken urte eta hilabeteetan; herria eta herritarrak oinarri, eragile sozial nahiz politikoen determinazioarekin.

Euskal Herritik oro har irrikaz bizi dugu bertan gertatzen ari dena. Ilusioa, irudimena, ausardia, erantzuna, sormena, seriotasuna, erantzukizuna, ... bezalako ezaugarri indibidual nahiz kolektiboak atzematen ditugu, eta inbidia sana sentitzen dugula aitortu beharra daukagu. Inbidia, gurean aurpegi edo bandera jokoan aditua den EAJ-PNV, tamainako errealitatea eraikitzeko, aurretik aipatu ditugun ezaugarrien kontra temati dabilelako. Adibide zehatzetara joz, Urkulluren Kataluniaren aferan “prudentzia” beharrezkoa denaren inguruko hitz ezin grisagoek ilusioaren termometroa zero azpitik jartzera laguntzen dute. Edo PNV-k Rajoy eta Kataluniaren arteko bitartekari lanetara bere burua eskaintzeak auzo lotsa sentiarazi digu. Momentu honetan alderdi jeltzalea ez dago lezioak emateko posizioan, are gutxiago, Katalunian (eta baita Euskal Herrian ere) eskubideak ukatzen dituen PP-ren Espainiako gobernuari aurrekontuetan baiezkkoa emanez “a por ellos” joateko alfonbra gorria ipintzen dionean.

Baina jar dezagun ikusmira gure herrian, Arrasaten. Kataluniako gaia lantzeko pleno berezi bat egitea eskatu dute 21 zinegotzitik 10ek, Arrasateko herritarrak ordezkatzeko dituzten zinegotzien ia erdiak. Gobernuak ezezkoa. Badirudi zuhaitzak aukeratzeko bai, baina hori baino zerbait garrantzitsuago den gai bat lantzeko (Kataluniako herriari elkartasuna eta babesa), herritarren ahotsari entzungor egiten diola alkateak eta gobernu taldeak. Arrasaten hartu beharreko erabakien inguruan Bilboko Sabin Etxetik jasotako beste agindu bat edota PSE-EErekin (erabakitze eskubidearen aurkako alderdi ezkertiar horietako bat) daukaten akordioa ote horren atzean?

Agerikoa da datozen egunotan ez duzuela iritziz aldatuko, baina legeak behartuta espainiar bandera jarri baduzue, ez zenukete urriaren 1ean Kataluniari babesa adierazteko “estelada” udaleko balkoian eskegiko? Haizea badabilelako ... jar ezazue estelada.